

SagarArte eta EHUko Arte Ederren Fakultatearen artean antolatuturiko

MAKATZA ERAKUSKETARAKO SORTZAILEEN LEHIAKETA

Aurrekariak:

SagarArte Astarbe Sagardotegiak bultzaturiko irabazi asmorik gabeko elkarte da. 2017. urtean hasiz eta 2019. urtean elkarte izaera eskuratuz, SagarArtek, garaiko kultura adierazpide ezberdinen eta sagardotegien arteko zubi lanak berregitea du helburu. Inguruko sortzaile gazteei aukera bat eskainiz, urtean behin SagarArtek sagarra eta sagardoaren kultura inspirazio iturri gisa erabiltzen dituen erakusketa bat sortzen du. Bigarren urtez beraz, Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultatearekin batera sortzaileak aurkitzeko balioko duen lehiaketa martxan jarriko da ondorengo ezaugarriekin.

2020. urte honetan Elkarteak proposatzen duen gaia **Makatzak** izango da. Makatza sagarrondoak landatzeko aintzinako sistema da, zeinetan hazi basati batetik abiatuz eta txertaketak eginez, bilatzen den sagar barietatea eskuratzen den. Makatza era berean gaur egun dugun bizi erritmoaren antagonista izango litzake. Naturak bere erritmoa duela gogorarazten digu, hiriko kaosaren aurrean orden alternatibo bat dugula esaten digu eta jatorri jasangarri batera itzultzera gonbidatzen digu.

Nori dago zuzenduta:

2019/2020ko ikaskurtean Arte Ederren Fakultatean ikasketak burutzen ari direnei zuzenduta dago, Gradu zein Graduondoko ikasketak.

Data esanguratsuak:

- Sagardotegira doako bisita: 2020-01-18
- Proiektuak jasotzeko epe amaiera: 2020-02-21
- Lehiaketaren irabazleak hautatuko diren eguna: 2020-02-29
- Irabazleen proiektuen garapen informea: 2020-03-27
- Proiektu bukatuak Astarbe Sagardotegian jasotzeko azken eguna: 2020/05/14

Zer eskaintzen degu?

- Sormena garatzeko aukera bat.
- Gordinean jasoko diren 500€-ko saria eta 100€-ko aurrekontua materialetan gastatzeko.
 - o 2020-ko Maiatzean jasoko dira.
- Obra salduz gero, sortzailearekin adosturiko salmenta prezioaren %60-a.
- 2020-2021 urte bitartean gutxienez 4 erakusketetan parte hartzeko aukera.

Zer eskatzen degu?

- Datak errespetatzea.
- Obrak ondo babestua jasotzea.
- Diru sarrerak (saria eta gastuak) azaltzen dituen faktura bat jasotzea.
- Obren sorkuntza ostean zesio akordio bat sinatzeko beharra.
- Erakusketa berriaren irekierara gerturatzeko beharra.

Epaimahia:

Era berean lehiaketan jasotzen diren proiektuak Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultateak zein SagarArte Elkarteak osatzen duten epai mahi bateratu batek aztertuko ditu. Epai mahai honen antolakuntza ondorengo izango da:

- Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultateko Dekanotzako kide bat.
- Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultateko Irakasle bat.
- Pasa den urteko SagarArte Sortzaile bila lehiaketako irabazlea.
- SagarArte Elkarteko zuzendaritzako kide bat.
- SagarArte Elkarteko koordinazioko kide bat.

Proiektua irabazlea hautatzeko erabiliko diren puntuak:

- Originaltasuna.
- Erabilitako tekniken maila.
- Sagarra eta Sagardoaren kulturaren oinarrituta egotea.
- Makatza- kontzeptuarekin lotuta egotea.
- Eraman erraza izatea eta paretetan jartzeko erraztasuna izatea.